

**2019KO EUSKADI LITERATURA SARIAK  
PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI 2019**

2019-11-18 Donostia-San Sebastián 18-11-2019

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintari eta herri ordezkariok, etorritako jaun andreok, arratsalde on eta eskerrik asko epaimahaikideoi eta zorionak irabazle guztioi.

Daniel, Juan Carlos, Asisko, Isabel, Patxi, Ramon eta Irati “Euskadi Literatura Saria” jaso duzue. Espero dugu, orain, irakurleen saria ere jasotzea. Hori bai da Sari hauen helburua: ondo egindako lana aitortu eta lan horiek hedatu, irakurle gehiago erakartzeko.

Los Premios Euskadi de Literatura nos dan la oportunidad de reconocer y dar a conocer las obras literarias más importantes del año. Es el doble objetivo de estos Premios: reconocer, en nombre de la sociedad vasca, la relevancia y calidad literaria de las obras premiadas; dar a conocer vuestro trabajo para atraer el interés de más y más personas, contribuir a extender la afición a la lectura.

Aitortzarekin batera, Sari hauek bigarren helburu bat daukate eta hori une honetan bertan eta aurreko asteetan betetzen ari gara. Sari hauen bitartez gure literatura eta gure sortzaileak ikusgarriago egin nahi ditugu.

Irakurzaletasuna eta literatura erdigunean jarri nahi ditugu, garrantzi handikoak baitira Euskadirentzat. Funtsezkoak dira herri sortzaile eta jantzia eraikitzen jarraitzeko.

Joseph Conrad-ek zioen moduan, “idazleek lanaren erdia baino ez dute idazten”, beste erdia irakurleek osatu behar dute.

Irakurleen esku geratzen da, beraz, gure sortzaileen lanetan murgiltzea, eraikitako historiak bizitzea, gorpuztutako pertsonaiekin batera orduak ematea, proposatutako gogoeten inguruan hausnartzea...

**“Irakurtzea da saria”**, dio Eusko Jaurlaritzak sarien inguruan abian jarri duen kanpaina.

Irakurtzea da saria, eta Sari hauek irakurtzeko gonbite bat ere badira. Irakurketak libreago egiten gaituelako, jantziago. Bestelako bizitzak irudikatzeko eta bizitzeko aukera ematen digu.

Hoy hemos entregado los Premios Euskadi de Literatura y, ahora, es el turno de las y los lectores. El premio es, por tanto, leer y disfrutar con estas obras. Sumergirnos en sus páginas. Vivir otras vidas. Gozar de la capacidad creativa y, sobre todo, ser mujeres y hombres más libres.

Irakurtzea da saria: Saria da Irati Elorrietak proposatutako giza-paisaia ezagutzea. Getxotik hasi eta Berlineraino. Atzera egitea eta gogoratzea gure kultura eta hizkuntza biziberritzeko egindako bide latza eta ederra, Xamarrek gogoratu digun moduan.

Saria da Patxi Zubizarretaren istorioetan murgiltzea, bere irudimenaz gozatzea. Saria da Asisko Urmenetaren talentuz gozatzea, eta Isabel Etxeberriaren maisutasunaz.

El Premio es disfrutar de la lucidez que reflejan los aforismos de Ramón Eder, dejarse llevar por su ironía. El premio es tener la oportunidad de acercarse a la visión solvente y audaz de Daniel Innerarity sobre el tiempo que vivimos, disfrutar con su provocación intelectual.

Zorionak guztioi; eskerrik asko gizarte sortzaileago, jantziago eta libreago eraikitzeke egiten duzuen ekarpen handiagatik.

Ohorea izan da zuei Sari hau ematea eta orain esan bezela, gure txanda da, **irakurtzea da saria!**

Eskerrik asko!